

Tartalo

Begi bakarreko gizon erraldoia da gaizto hau, artzain bezala lan egiten du, ardiak zaintzen. Kondairetan herriko gazteak jaten dituela esaten da, istorio asko kontatu dira Tartalori buruz.

Munduko mitologia ezberdinetan oso ezaguna da ziklope maltzur hau. Greziar eta Erromatar mitologia klasikoan asko agertzen zen.

Istorio zahar batek kontatzen duenez bi anai zahar mendian zeuden eta ekaitz bat hasi zenez kobazulo baten barruan babestu ziren. Beraien atzetik begi bakar bateko artzain bat sartu zen eta kobazuloa harri handi batekin itxi zuen.



Artzaina Tartalo zela konturatu ziren eta Tartalok egun horretan anai zaharrena afalduko zuela esan zuen, hurrengo egunean gazteena afaltzeko.

Anaia zaharrena jan ondoren lo gelditu zen, anai gazteena lapikoarekin tartaloren begia erretzea lortu zuen. Tartalok bere ardiei laguntza eskatu zien baina gazteak ardi baten larruarekin korrika ihes alde egin zuen. Putzu bat igeri egiten gurutzatu zuen, Tartalo bere atzetik joan zen baina igeri egiten ez zekienez ito egin zela kontatzen du kondairak.

Sugaar

Sugaar, suge handi bat da, burua eta buztana sutan duela esaten dute. Herensugearen antza du, baina adituek zaharrago dela esaten dute. Lur azpian edo kobazulo ilunetan aurki dezakegu.

Azkoiti herrian, Mariren senarra dela esaten dute eta ostiral guztietan Marirekin elkartzen denean, izugarrizko ekaitzak sortzen dira. Nafarra herrian aldiz, deabru gaizto bat dela esaten dute eta umeei gurasoen aginduak betetzen ez badute, Sugaarrek zigortu egiten die.

Istorio zahar batek kontatzen du, bi anai Sugarren kobazuloa ikusi eta sartu zirela. Gazteenak buztana moztu zion eta helduena aldiz, bere anaiaren portaera txarra zela esan zuen.

Handik urte batzuetara, anai zaharra gizon misterioitsu batekin topatu zen eta honek bi opari eman zizkion. Anai helduarentzat urrezko kaxa txiki bat eta

gaztearentzat gerriko gorri bat. Baina, anai zaharra gazteari gerrikoa eman zioenean jarriko ez zuela esan zuen, orduan zuhaitz bati lotuta utzi zioten bere jarreragatik. Momentu horretan zuhaitzak su hartu zuen eta leku horretan zulo bat besterik ez zen gelditu. Orduan konturatu ziren Sugaar zela gizon misteriotsu hura.



1. Idatzi T edo S, "T" esaldia Tartalori buruz baldin bada eta "S" Sugaarren inguruan denean.

Begi bakar bat du. ☐

Herensuge baten itxura du. ☐

Grezian eta Erroman berari buruz hitz egiten zen. ☐

Mariren senarra dela esaten da. ☐

Gazteak jaten zituen. ☐

Haurrak zigortzen zituen. ☐

Kobazulo batean zeuden bi anai afaldu nahi zituen. ☐

Anai zaharrena jan egin zuen. ☐

Anai zaharrena gerriko batekin zigortu zuen. ☐

Ez zekien igeri egiten. ☐

Artzaina zen. ☐

Buztana moztu zioten. ☐

Gizon baten itxura hartu zuen. ☐

